

USURBIL / Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa gaur arratsaldean Sutegi udal liburutegian

Udazkenean sartu ostean Sutegi udal liburutegian zenbait ekintza prestatuta dituzte. Pasa den astean Ixabel Agirresarobe herritarra izan zen ipuinak kontatzen eta gaur arratsaldeko 18:00etan hasita Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa izango da Sutegi udal liburutegian.

Udalak antolatuta, Haur Hezkuntzako 4. mailako hurrek ekimen honetaz gozatu ahal izango dute. Bestalde, bihar, asteazkena, Liburutegien eguna ospatzen da eta Usurbilgo liburutegiak berrikuntza batzuk ekarriko ditu egun horretan bertan: Maileguan jarriko dira Santixabeletako bideoa, Peru Galbetek egina eta Ibai Arrietak ateratako argazkiak (formatu digitalean, azken hauek). Bestalde, Liburu elektronikoak irakurtzeko bi irakurgailu ere mailegatzeko jarriko ditu liburutegiak. Azkenik, ordenagailu eramangarri bat ere erabiltzaileen zerbitzura jarriko da, baina liburutegian soilik erabili ahal izango da.

Usurbilgo Udal Liburutegiak bere blog propioa ere badu eta bertan eguneratzen dira liburutegiak eskaintzen dituen berrikuntza desberdinak eta egitaraua bera. [http:// liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/](http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/)